

Mozorro eguna eta rock kontzertuak asteburuan San Prudentzio jaietan / 11



Ainhoa Urien idazle abadiñarrak 'Ehun zaldi trostan' lan berria kaleratu du oraintsu / 17



Egitaraua plazatik harago zabalduko dute aurtengo Mañariko Kultur Astea / 10



HILEKO ZOZKETAK / 10



**MANUEL MORENO
SAN ROMANEN KOADROAK,
GARAI BATEKO
ELORRIOREN LEKUKOTZA**

Manuel Moreno zenaren 100 bat pieza daude ikusgai Iturri kultur etxean atondutako erakusketan; maiatz osoan egongo da ikusgai. / 2-3

Manolo, Lourdes eta Rosa Mari Moreno Garaizabal neba-arrebak, Manuel aititaren autoerreturatua atzean dutela.

HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Maiatzaren 2tik 31ra

**UDABERRIKO
ESKAINTZAK**

Abadiño

www.homedesign.schmidt



Manolo, Rosa Mari eta Lourdes Moreno Garaizabal neba-arrebak, euren aititak egindako lan bat eskuetan.

Aritz Maldonado ELORRIO

Moreno Garaizabal familiako Rosa Mari, Manolo eta Lourdes neba-arrebak pozik daude aitita Manuelen lanak Elorrioko Iturri kultur etxean ikusita. Makina bat elorriar joan da kulturgunera lanak ikustera, eta artistari buruz gehiago jakiteko asmoagaz. Hain zuzen ere, apiril hasieratik dago ikusgai Manuel Moreno San Roman (1893-1969) artistaren hainbat lan bertan, familiak utzita. Margolari eta eskultoreak XX. mende erdialdean sorturiko obrak maiatza amaitu bitartean egongo dira bertan ikusgai. Artista polifazetikoa zen Manuel Moreno, Barakaldon jaio zen, eta koadroak margotzeaz gainera, eskulturak, urregintza eta galvanoplastia ere jorratzen zituen. ANBOTOK Iturri bertan ipini du hitzordua artistaren senideekin. Elkarrizketak iraun duen bitartean, hainbat izan dira kulturgunera joan diren herritarrak, eta lanen kalitateaz gainera lanak "hurbileko paraieak" gogoratzen dizkietela nabarmendu dute askok. "Orain hamarkada bat zuzetako Elorrio zelakoa zen ezagutzeko aukera bikaina da erakusketa hau", azpimarratu dute. Beste batzuek, aitita Manuel Moreno eta amama Alejandra Garaizabal ezagutu zituztela gogoratu diete senideei. Oroko-

"Oso pozgarria da aititaren lanak Iturri ikusgai egotea"

MANOLO, ROSA MARI ETA LOURDES MORENO MANUEL MORENOREN ILOBAK Manuel Moreno San Romanen 100 bat lan ikusgai daude Elorrioko Iturri kultur etxean; lanek garai bateko Elorrio zelakoa zen ikusteko bilduma osatzen dute

rrean, beraz, Manuel Moreno zenaren senideak eta herritarrak gustura daude erakusketagaz. Guztira, artistaren 100 bat lan daude ikusgai, erretratuak eta paisaiak gehien bat. Hala ere, beste lan mota batzuk, orduko kontratuak zirriborroak eta dokumentazioa. Urte askoan gordeta egon eta gero, lan hauek ikusgai daude Bilboko Arte

Ederren Museoaren, Morenoren senideen eta Elorrioko Udaren elkarlanari eskerrak.

Nondik dator erakusketa zabalteko ideia?

Manuel Moreno: Orain 50 bat urte, Miguel Egiluz Antxia margolari handiagaz ikasi nuen Durangon. Hartu-eman handia zuen etxeko jendeagaz, eta berak proposatu zuen etxean genituen

koadroekin erakusketa bat egin. Lehenengoa Durangon bertan egin genuen, Ezkurdi aretoan. Berak prestatu zuen dena, baina ez zuen oihartzun handiegirik izan. Gerora, Bilboko Windsor aretoan zabaldu genuen, eta hangoagaz harrituta geratu ginen. Gogoan dut jaiak zirela, elkarrengaz bazkaltzen geundela, eta Egiluzek deitu zuen: 'Ekarri

"MIRIAM ALZURI KONTSERBATZAILEAK ANIMATU GINTUEN AITITAREN LANAK ERAKUSTERA"

"LANAK KUTXA BATEAN SARTUTA EGON DIRA HAINBAT URTEZ, ONDO GORDETA"

koadro gehiago, denak saldu dira eta!'. Aita asko haserretu zen.

Rosa Mari Moreno: Ez genuen denak saltzeko asmorik, erakusketa egitea zen asmoa. Lan horietariko asko etxean genituen gutariko bakoitzak.

M. M.: Guztiak salduta, kontratua sinatu genuen, eta gaur egunera arte ez dugu beste erakusketarik egin. Tailerra zegoen landan etxeak egin ziren. Ama-birjinaren, aingeruen eta kristoren irudi ugari gordeta geratu zen, horiek ez zirelako saltzen. Lanetariko batzuk bagenekien non zeuden, baina beste batzuk galdutzat eman genituen.

Lourdes Moreno: Kutxa batean sartuta, ondo gordeta egon dira hainbat urtez, baina ez genekien

non zeuden, agertu diren arte! Maleta batean kiribilduta topatu ditugu beste batzuk. Denbora luzean egon dira gordeta, eta sitsak janda ere egon dira batzuk! Manolok lan dezente izan du horiek konpontzeko.

M. M.: Bilboko Arte Ederretako Miriam Alzuri kontserbatzaileak animatu gintuen aittaren lanak erakustera. Berak esan zigun 'Honegaz zeozer egin behar da'. Aitita eskultore lez agertzen zen liburuetan, baina ez margolari lez. Ilun eta zikin zeuden eskultura asko; denak uragaz garbitu, bernizatu eta ohol baten gainean itsatsi genituen, arrain-itsasgaiagaz. Urtebete inguru eman dut denak konpontzen. Astiro-astiro, presarik barik ibili naiz, urtebeteko itxarote-zerrenda zegoelako erakusketa zabaltzeko. **Garatu duzue margozaletasuna aittarengandik?**

R. M.: Manolok, bai, besteok apenas!

M. M.: Aitak esaten zidan, 'Tira, joan aittarengana ea zeozer ikasten duzun!' (barrez). Batez ere, moldekatzen ibiltzen ginen, baina ez margotzen. Behin aita, aitita eta hiruok Iguria aldera joan

ginen, Udalatx eta etxeak margoitzeko handik; hori gogoan dut.

L. M.: Lan mordoak agertu da, tamaina eta mota desberdineta-koak. Bere garaian beharbada ez genion garrantzi handirik eman. Etxea konpondu genuen, konponketan parte hartu zuten langileei eman genizkien batzuk. Asko, jainkoaren eta aingeruen irudiak, Galiziara eramane zituzten. Ondo dago aittaren lanak hortik zehar zabaldurik daudela ikustea.

R. M.: Tailerrean modelo mordoak egiten zuen; egin, apurtu

"BILBOKO WINDSOR ARETOAN EGIN GENUEN ERAKUSKETA BAT, 70EKO HAMARKADAN"

"ETXEKO BAZTERRAK MARGO UGARITAN AGERTZEN DIRA, BAINA ETXEA OSORIK, BATEAN ERE EZ"

eta berriro egin. Guk, batez ere, modeloak egiten lagundu genuen; karbonoplastia egiten, bernizatzen, bainua ematen eta piezak muntatzen laguntzen genuen.

Aitita Manuelek Elorrioren garatu zuen bere ibilbide artistikoa.

R. M.: Barakaldon jaio zen, eta, gero, Elorriora ezkondu zen. Arte Ederren eskolako ikaslea zela ezagutu zuen amama, Alejandra Garaizabal, eta gero ezkondu ziren. Elorrioren bizi izan ziren.

L. M.: Erakusketako pintoretariko askotan gure etxea zeneko bazterrak agertzen dira, baina ez daukagu argazki bakar bat ere etxea osorik agertzen dena! **Gustatuko litzaizueke beste nonbait erakustea lan hauek?**

M. M.: Bilbora eramatea gustatuko litzaizuke, baina Arte Ederren museoan obretan daudenez, ez dugu uste luzaroan ezer egin ahal izango dugunik. Amamaren eta aittaren erretratuak han uztea gustatuko litzaizuke.



Ikusi bideoa

Erakusketa maiatz osoan egongo da ikusgai

Miriam Alzuri kontserbatzaileak erakusketa zabaltzeko emandako eupada eskertu dute senideek



Erakusketaren aurkezpen eguna. JOSU URIZARBARRENA

Moreno Garaizabal familiak, Elorrioko Udalak eta Bilboko Arte Ederren Museoak elkarlanean antolatu dute Manuel Moreno San Roman artistaren lanak batzen dituen erakusketa. Hain zuzen ere, BAEMeko Miriam Alzuri kontserbatzaileak emandako eupada eskertu gura izan dute senideek. "Berak esan zigun erakustera egin

egin behar zela, eta, horrez gainera, lanak zelan konpondu ere esan zigun; marko argi eta finak ipintzeko gomendioa berak eman zigun". Erakusketaren ate irekiera ekitaldira herritar ugari joan zen, eta, senideez gainera, Julene Lazkano Elorrioko Alkateak eta Miriam Alzuri kontserbatzaileak ere parte hartu zuten.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA AIZIEMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

| Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

| Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

| Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

| Mekatronika Industrial

| Automatizazio eta Robotika Industrial

Espezializazio ikastaroa

| Industria Mantentzearen Digitalizazioa

| Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

ATE IREKIAK



Maiatzak 10

11:00etan

664298683 // 664298704



Ezohiko irudiak sortu ziren: lurretan, normalean pazienteek darabiltzen itxarongelan topatu genituen osasun langileak, zain.

Ezohiko itzalaldiak eskualdea eten du

Aurrekaririk bako itzalaldiak goitik behera amatatu zuen Durangaldea, astelehenean. 12:30ean eten zen argindarra, eta eskualdea ez zen erabat isiotu 21:00ak arte. ANBOTOk kalera irten zuen egoerak kaltetutako herritarren testigantzak jasotzeko

E.H / J.D. DURANGALDEA

Oraindino ez dago argi itzalaldi erabatekoa zerk eta zelan eragin zuen, baina Durangaldeko herritarrek ez dute berehalakoan ahaztuko astelehenean bizitakoa. Argindarra 12:30 inguruan joan zen eta etenaldi erabatekoak gizarteko sektore guztiei eragin zien. ANBOTO kalera irten zen herritarren testigantzak jasotzera: Bruss Durango enpresako langile batzuk fabrika atarian topatu zituzten, lana aurrera atera ezinda. "Etena kontrolatu bako momentu batean izan da. Makinen zikloak une ezberdinetan eten dira. Dena onbideratzeko, txanda bi beharko ditugu. Gainera, honek gure aste osoko

lanari eragin dio", adierazi zuen enpresako arduradun Kepa Jon Aranak. Rakel Beitia, Iurretako Osasun Zentroko erizaina, kontsultak pasatzen zebilela harpatu zuen itzalaldiak: "Ordenagailurik barik ezin dugu pazienteen historialik edo plakarik aztertu". Egoera horrek ezohiko irudia utzi zuen anbulatorioan. Normalean pazienteek erabiltzen duten itxarongela osasun langileek baliatu zuten. Hantxe itxaron zuten argindarra bueltatu arte. Durangoko Plus Dental hagin klinikan ere antzeko egoera bizi izan zuten. "Kontsultara etorritako jendea etxera bidali behar izan dugu", adierazi zuen Iraia Garciak. "Hemendik aurre-

ra, hitzorduak berreskuratzen eta berrantolatzen hasiko gara", gaineratu zuen. Tren geltokirako sarreran, etxera zelan bueltatu pentsatzen topatu genuen Jasone Martin ikasle berriztarra. "Denbora luzerako bada, autobusa hartzea pentsatzen nabil, eta ez daukat gurasoak jakinaren gainean ipintzeko modurik", esan zigun. Ezkurdi eta Andra Mari inguruko hainbat taberna zabalik zeuden, baina, bistakoa denez, zerbitzuak mugatuta. Esaterako, kafe makinak ez zebiltzan. Mesoi Berriko Mila Eizmendik umorez hartu zuen egoera: "Kandelak piztu eta, modu batera edo bestera, bezeroak atenditzeko moduan ibili gara".

Alde Zaharrean zuntz optikoa zabaltzeko lanak amaitu dituzte

Azpiegitura sortu berria operadoreen eskura dago. Udalak dio "nabarmen" hobetuko dela konexioa

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak amaitu ditu udalerriko Alde Zaharrean zuntz optikoa zabaltzeko lanak. Lanak Andra Marian, Goienkalean, Kanpatorrostetan, Barrenkalean, Santa

Ana plazan, Santanosten, Kalebarrian eta San Martinpe atarian egin dituzte, Bizkaiko Foru Aldundiko ondare zerbitzuak ezarritako irizpideak beteta; hau da, monumentu-multzo izendatutako inguruetan esku

hartzea eskatzen den modura. Era horretan, azpiegitura sortu berria baimendutako edozein operadorek erabili ahal izango du, eta herritarrek abiadura handiko internet zerbitzua eskuratu ahal izango dute. Alde Zaharreko bizilagunen konexioa "nabarmen" hobetuko dela azpimarratu du udalak. Institutio publiko horrek 48.264 euroko inbertsioa egin du. Era berean, udal iturriek Bizkaiko Foru Aldundiagaz izandako lankidetzak eskertu dute.

Prezio mugatuko 22 etxebizitza eskuratzeko prozesua Durangon

Udalak Birjinosteko 22 etxebizitza esleitzeko prozesua hasi du. Eskariak maiatzaren 28ra arte egin daitezke

Aitziber Basauri DURANGO

Durangoko lehenengo udal-etxebizitza tasatuak izango direnak eraikitzen dabilta Birjinoste auzoan, eta udalak horietariko bat eskuratzeko prozesuan parte hartzeko epea zabaldu du. Etxebizitzetariko bat lortu gura duenak udalaren erregistro elektronikoa edo Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) eman behar du izena, maiatzaren 28ra bitartean. Esleipen-prozesua zozketa publiko bidez egingo dute.

Logela bateko etxebizitza bat, logela biko bederatzi eta hiru logelako hamar dabilta eraikitzen Birjinosten. Horrez gainera, mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituriko beste etxebizitza bi ere eraikiko dituzte. Denek dute trastelekua eta garajea. Etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintzen artean, adinez nagusia izatea, eta azken urte

bietan jabetzan etxerik ez izatea daude, baita urtean bizikidetzat 15.000tik 50.000 eurora arteko diru sarrerak izatea ere. Udal ordezkariak gaineratu dutenez, Durangon erroldaturikoek eta Durangon lan egiten dutenek lehentasuna izango dute.

Herriaren Eskubidea "pozik" agertu da. "Azkenean, legeak 2006tik behartzen zituen etxebizitza tasatuak izango ditu Durangok", esan dute. Hala ere, talde independenteak argi adierazi du ez dagoela ados "EAJk, PSE-EEk eta PPK 2024an etxebizitza horietarako ezarritako prezioekin". Diotenez, egungo prezioak "oso urrun" daude bere garaian aurkezturiko proposamenetik. Herriaren Eskubidearen esanetan, etxebizitzek "50.000 euro gutxiago balioko lukete batez beste, talde independentearen proposamena onartu izan balitz".

EH Bilduk Landarte etxea berreskuratzea proposatu du

Gazteentzako erabilera anitzeko gela, entsegu lokalak eta auzo elkarteentzako gelak atontzea proposatu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk proposamen bat ipini du udalerriko politikagintzaren mahai gainean: Musika Eskolaren atzealdeko eraikina, Landarte Etxea, berreskuratzea eta eremuari erabilera ematea. Eraikinaren mendealdeko aldean, Musika Eskolako ikasleentzat entsegu-gelak ipintzea eta inguruko auzo elkarten erabilerarako eremuak atontzea proposatu du. Eta ekialdeko aldean erabilera anitzeko gela bat ipintzea proposatu dute: "Gazteentzako erabilera anitzeko gunea aproposa dela irizten diogu; solairu bakarrekoa da, leiho txikiak ditu eta erraz intsonorizatu daiteke. Gainera, aisialdirako eta kirolerako aukerak ematen dituen terraza dauka, eta areto handi bat sorkuntzarako eta ikusizunetarako". Koalizio subira-



Landarte etxea. DURANGOKO EH BILDU

nista "prest" dago udal gobernuagaz batera proiektua garatzeko: "Durangok eremu falta nabaria du, eta, modu honetan, eraikin historiko baten berreskurapena eta espazio faltaren arazoa uztartuko genituzke", azaldu dute.

Auto klasikoen erakusketa Maiatzaren Leheneko jaietan

Zapatu goizean, 1990a baino lehenagoko ibilgailuz beteko dira Herria auzo elkartearen bueltako inguruak

Ekaitz Herrera DURANGO
Urtero legez, Herria auzo elkar-
teak antolatuta, Maiatzaren 1eko
jaiak ospatzen dabiltza Duran-
goko Askatasun Etorbidearen
eta Alluitz kalearen artean.
Zapatuan, auto klasikoen era-
kusketa egongo da. 35 urte bai-
no gehiago dituzten autoak
egongo dira bertan, 10:00etatik
11:00etara bitartean. 1990a baino
lehenagoko autoak dira. Horren
ondoren, 30 bat kilometroko
ibilbidea egingo dute Goiuria,
Garai, Miota, Elorrio, Axpe eta
Durango zeharkatuta.



lazko ibilgailuetariko bat. JAIME INTXAUSTI



Trumoittek eta Garaiko umeek joan zen domekan egin zuten jardunaldia. TRUMOITTE

Garaiko umeak euren ortua prestatzen hasi dira

Kalabaza haziak eta krispeta-arto garauak erein dituzte potoetan, eta txorimalo ederra egin dute: 'Babarrun'

Ekaitz Herrera GARAI
Trumoitte kultur elkarteko ki-
deek egitasmo berri bat hasi
dute herriko umeen jolaserako
eta heziketarako: herriko hau-
rrentzat ortua prestatzen hasi
dira. Joan zen domekan egin
zuten lehenengo jardunaldia,
frontoian. Bertaraturiko umeek
kalabaza haziak eta krispetata-
rako arto-garauak erein zituzten
hainbat pototan. Behin tailerra
amaituta, etxera eraman zituz-
ten han zaintzeko, hurrengo
ekintzara arte. Ana De la Maza
ekoizlea izan zuten bidelagun
ereite lanetan.

Maiatzaren 18an izango dute
hurrengo jardunaldia, 10:30ean.
"Aurten, kalabaza ereitea pen-
tsatu dugu, urri aldera Arimen
Gaua ospatu ahal izateko", azal-
du du Trumoitteko Alazne Sa-
rrigoitiak. Kalabaza eta krispe-
ta-arto garauak ereiteaz gainera,
"intsektuentzako hotela" eta
kartelak egin zituzten, baita
txorimalo polit-polita ere: *Ba-
barrun*. Horiek guztiak ortuan
behar den moduan ikusteko,
baina, maiatzaren 18ra arte itxa-
ron beharko da. Trumoitteko
kideek iragarri dutenez, "plaza
inguruan" ipiniko dute ortua.

Zaldibarko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, martxan

Lanak maiatzaren 18a baino lehenago aurkeztu behar dira. Lehenengo sariak 250 euro jasoko ditu; bigarrenak, 150

Ekaitz Herrera ZALDIBAR
Zaldibarko jaiak iragartzeko
kartel lehiaketa martxan da. Par-
te hartzaileek maiatzaren 18ra
arteko epea izango dute diseinuak
aurkezteko. Kartelak gutunazal
itxian entregatu beharko dituzte,

udal bulegoetan, *2025eko Zaldi-
barko Jaiak* izenburuagaz eta
egilearen adina zehaztuta. Ba-
rrualdean, beste gutunazal itxi
batean, egilearen izen-abizenak,
bizilekua eta helbidea zehaztu
beharko dituzte. Lehiakideak

diseinua euskarri digitalean aur-
keztu gura badu, *kultura@zaldi-
bar.eus* helbidera bidali beharko
du lana. Kartel irabazleak 250
euroko saria eskuratuko du; bi-
garrenak, 150 eurokoa. Horrez
gainera, hirugarren sari bat egon-
go da 14 urtetik beherako parte
hartzaileentzat: onuradunak 100
euroko balioa duen sari berezia
jasoko du. Epaimahaiak maiatza-
ren 22an emango du kartel ira-
bazlearen berri. Lehiaketako
oinarriak Zaldibarko Udalaren
web atarian kontsultatu daitezke.

CENTRO INTEGRADO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA

Aurrematrikula
maiatzaren Setik 23ra

Matrikula
uztailaren 11tik aurrera

Ate irekiak
maiatzaren 7an

ESKAINNTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial
- Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALA (C gradua)
Giro naturalean eta babestuan soldatzea (627 ordu)

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
Langabeel eta landunel zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.eus | www.fpzornotza.eus

Mozorroak eta jai giroa, asteburuko protagonista

Apirilaren 27an Donien Atxa jasota eman zieten hasiera San Prudentzio jaiei Traña-Matienan. Txosnak apirilaren 30ean zabaldu zituzten, Txanbolin txistulari taldeko kideek jaurtitako txupinazoagaz. Asteburuan jai giroa izango da nagusi

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Traña-Matienan jai giroa da nagusi apirilaren 27tik hona. Eta asteburuan ere, giro aparta egoitea aurreikusten da auzoan. Gaur arratsaldean, San Prudentzio esku pilota txapelketa, xake txapelketa eta partxis txapelketa jokatu dira. Ondoren, 22:00etan, kontzertuak egongo dira Traña plazan: etxeko Korroxion eta Lionels, eta Andaluziako Rein-cidentes.

Mozorro Eguna

Zapatua jaietako egun handietariko bat izango da, abadiñarrek kaleak mozerrotuta hartzen dituzten eguna. Urtero legez, herritarrek mozerro irudimentsuak soinean ibiliko dira kalejiran. Aurtan, Goxo fanfarreak girotuko du eguna. Aurretik, 14:30ean, herri bazkaria eta kua-drillen arteko jolasak egongo dira. 22:15ean *Deabruak gara* kale ikuskizun piroteknikoa egongo da Traña plazan. Ondo-



Donien Atxa jaso osteko momentua.

GAUR, 22:00ETAN, KORROXION, LIONELS ETA REINCIDENTES TALDEAK ARITUKO DIRA JAIETAN

ren, Berriztu eta Maiatz erro-meria taldeak.

Asteburua borobiltzeko, domekan, umeentzako jolasak, perretxiko dastatzea, mus txapelketa eta moda desfilea egongo dira, besteak beste.



Zubitegi Kirol Parkeko padel pista.

Mallabiko Zubitegi Kirol Parkeko padel pista zabalik dagoeneko

Interesdunek udal webgunearen bitartez egin beharko dituzte kantxarako erreserba zein ordainketa

M.Z. MALLABIA

Apirilaren 22tik aurrera erabilgarri dago Zubitegi Kirol Parkeko padel pista, eta, horrenbestez, mallabitarrek dagoeneko aukera dute kirolgunea erabiltzeko, betiere, aurretiazko erreserba eta izen emate sistemaren bitartez, udalak ohar batean azaldu duenez.

Erreserbak Mallabiko Udalaren webgunearen bitartez egin behar dira, eta, horretarako, erabiltzaileek izena eman beharko dute aurretiaz. Erabilera txandak ordu eta erdikoak (90 minutu) izango dira, eta txanda bakoitzaren prezioa 6 eurokoa izango da.

Pista astelehenetik domekara bitartean erabili daiteke, 08:00etatik 21:30era. Gehienez lau pertsonak erabili ahal izango dute pista aldi berean. Bestalde, 14 urtetik beherakoek nagusi baten laguntza beharko dute instalazioa erabiltzeko.

Padel pista itxita egon da azken hileotan, "bertan egindako ekintza bandalikoak direla eta", oharrak zehazten duenez. Udalak gogorarazi du horrelako ekintzak "onartezinak" direla eta "ez dutela lekuri udalerrian". Horiak horrela, segurtasun kamerak ipini dituzte kirolgune honetan.

Astolako kiroldegiko tabernaren ustiapena lehiaketara atera dute

Interesdunek maiatzaren 5era arte izango dute eskaintzak aurkezteko aukera, Abadiñoako udal bulegoetan

J.D. ABADIÑO

Abadiñoako Udalak Astolako kiroldegiko ostalaritza-instalazioak ustiatzeko kontzesioa abiatu du. Kiroldegiko taberna eta futbol zelaiko taberna esleituko dira prozesuaren bitartez, eta interesdunek maiatzaren 5era arte izango dute eskaintzak aurkezteko aukera.

Tabernetako esleipena urtebikoa izango da, baina urterik urte luzatu ahal izango da alde biek hala adosten badute. Taberna esleitzeko orrian, derrigorrez bete beharreko zenbait alderdi jasotzen da. Besteak beste, zabaltzeko gutxie-

TABERNAKO ESLEIPENA URTEBIKOA IZANGO DA, BAINA URTERIK URTE LUZATU DAITEKE

neko ordutegia eta egunei buruzko baldintzak. Horrez gainera, euskararen ezagutza eta udan menuak edo plater konbinatuak eskaintzeko konpromisoa modu positiboan baloratuko dira, udalak ohar batean azaldu duenez.

Mallabiko jaiak prestatzen hasteko lehen bilera, hilaren 7an

Jai Batzordeak bileran parte hartzera deitu ditu herritarrek. Liburutegian batuko dira, 18:00etan



Aurreko jai batzuetako argazkia.

E.H. MALLABIA

Maiatzaren 7an, Mallabiko Jai Batzordeak lehenengo bilera zabala egingo du udalerriko ospakizun biak — Andra Mari jaiak eta Urriko jaiak — prestatzeko. Antolatzaileek herritar guztiak deitu dituzte batzarrean parte hartu eta ekarpenak egitera jaiak antolatzeko. Bilera liburutegian izango da, 18:00etan. Bertaratze-ko aukerarik izan ez baina ekarpenen bat egin gura duenak honako helbide honetara bidali ditzake proposamenak: kulturetxea@mallabia.eus

EKARPENEN BAT EGIN GURA DUENAK POSTA ELEKTRONIKOZ ERE BIDALI DITZAKE PROPOSAMENAK

GREMIOEN GIDA

 Zurgintza



Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

 Zurgintza




EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

 Dekorazioa



Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaila A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

 Iturgintza



M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza



UNAI
GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



Zaintzaileen formakuntza zikloa amaitu dute Elorrion

Beste hamar emakumek parte hartu dute Kainabera Gobernu Kanpoko Erakundeak, Elorrioko Udalak eta Osasun Etxeak gidatzen duten 'Zaintza barik bizitzarik ez' egitasmoan; Elorrioko Udalak 2017an ipini zuen martxan egitasmoa

A. M. ELORRIO

'Zaintza barik bizitzarik ez' egitasmoaren edizio berria amaitu dute apirilean Elorrion. Kainabera GKEak, Elorrioko Udalak eta Osasun zentroak parte hartzen duen egitasmoak mende-kotasuna duten pertsonak zaintzen lan egiten duten emakume migratuak prestatzeko eta ahal-duntzeko helburua du, besteak beste. Egitasmoa 2017tik da martxan.

Ikastaroak irauten duen denboran, osasun arloko edukiak eta emakume, herritartasun eta lan eskubideekin loturiko edukiak lantzen dira. Aurtengo edizioan, hamar emakumek parte hartu dute. Cony Carranza hezitzaile eta soziologo feministak dinamizatu ditu saioak. "Aurtengoan hamar emakumek parte hartu dute, hainbat jatorritakoak (Nikaragua, Bolivia, Ekuador eta Maroko), eta oso bizi-esperientzia desberdinak dituztenak", azaldu du udalak



'Zaintza barik bizitzarik ez!' egitasmoa parte hartzaileak.

ohar baten bitartez. Lagun Toki txokoan banatu zizkieten ziurtagiriak ikastaroko parte hartzaileei, eta Julene Lazkano Elorrioko alkatea ere bertan egon zen. Berdintasun arloko zinegotzi Alazne Mendizabalek

txokoko kideen ekarpena nabarmendu du: "Instalazioen ateak eskuzabaltasunez zabaltzeaz gainera, saio bakoitzeko askariak prestatzen lagundu dute, eta parte hartzaile garenok bereziki eskertu gura dugu hori".

Merkataritzako bonuen kanpaina berria Elorrion

Gaur, maiatzak 2, hasiko da Elorrioko merkataritza sustatzeko bonuen kanpaina berria

A. M. ELORRIO

'Elorrixon dendarik denda' izena duen kanpaina gaur hasiko da, eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Elorrioko Udalak 20.000 euro erabiliko ditu herriko merkataritza eta komertzio txikiak sustatzeko. Herritarrek 30 euroko erosketa batean 20 euro ordainduko dituzte; 18 urtetik gorako herritar bakoitzak bonu bi trukatzeko aukera izango du. Erosketak komertzio bakarrean edo bitan egin ahal izango dira, eta bonu biak erosketa bakarrean erabiliz gero, erosketaren zenbatekoak 60 eurokoa izan behar du, gutxienez.

Udalaren esanetan, Elorrioko 27 komertzio batu dira kanpainara, eta bakoitzak 74 bonu izango ditu herritarren eskura. Bonuetarako, merkatariek kudeatutako aplikazio informatikoa erabiliko da; beraz, herritarrek NAN agiria aurkeztea nahikoa izango dute erosketak egiterakoan.

Izurtzako pilotalekuak prest du sare berria

Udalak frontoiko sare zaharra berri batekin ordezkatu du, 15.300 euroko inbertsioagaz

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak pilotalekuko sarea aldatu du. Sare berria orain hilabete inguru ipini zuten eta frontoiko erabiltzaileentzat prest dago. Sare horren funtzioa pilotak kalera ez joatea da.

Aurretik zegoen sarea ez zuen bere funtzioa ondo betetzen, urteetako erabileragaz zaharkituta geratu zelako. Udalak horregaitik hartu du aldatzeko erabakia. Horregaz batera, arrazoi berdinarengaitik, txaparen azpiko olana ere aldatu dute. Lan guztiek 15.300 euroko arrerikontua izan dute.



Frontoiko sare berria.

Bisita egingo dute Oizko Ibilbide Megalitikoa ezagutzeko

Maiatzaren 10ean mendi irteera egingo dute Oizko Ibilbide Megalitikoa ezagutzeko; 09:30ean irtengo dira



Agiri arkeologia elkarteak prestatu du programa.

A. M. BERRIZ / MALLABIA

Oizko Estazio Megalitikoaren balioa nabarmentzeko eta hedatzeko programaren barruan, Berrizko eta Mallabiko udalek, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzagaz lankidetzan, arkeologiari buruzko beste jardunaldi batzuk bul-tzatuko dituzte. Horretarako, besteak beste, maiatzaren 10ean bisita gidatua egingo dute Oizko Estazio Megalitikora; 09:30ean izango da hitzordua, Undakortako aparkalekuan. Hara hel-tzeko, autobus zerbitzua ipiniko dute Mallabiko Petrilen (08:30ean) eta Txurrukan (08:45ean). Sei kilometro eta erdiko ibilbidean zehar, Probazelaiburun, Iturzuriganan eta Ipiñarrietan egingo dituzte azalpen geldialdiak. Jardunaldia Agiri arkeologia elkarteak prestatu du.

Jauregizahar plaza berrizteko lanak amaitu dituzte Zornotzan

Proiektuak 1,3 milioi euroko inbertsioa izan du. Plazaren estetika eta atseden guneak hobetu dituzte

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Zornotzako Udalak amaitu ditu Jauregizahar plaza berrizteko lanak. Inguruaren funtzionaltasuna eta irisgarritasuna hobetu dituzte, eta, aldi berean, plazaren estetika eta erosotasuna berriztu. Udalak inguruko landaredia ere handitu du: eremua hobetzeko espezieak landatu dituzte bertan, gerizpea ematea ahalbidetzen dutenak. Horrez gainera, umeentzako txintxaunak ere berriztu dituzte; auzorako sarbideei dagokie-

nez, espaloiak zabaldu dituzte-la jakinarazi du udalak.

"Herritarren beharrianetara"

Ainhua Salterain alkatearen berbetan, plaza "herritarren beharrianetara" egokitu dute, "pertsonen adina edo mugikortasuna edozein" izanda ere. Auzotar guztien "bizikidetzat eta gozamenaren errazteko gune moderno eta funtzionala" eratu dutela azpimarratu du Salterainek. Lanek 1,3 milioi euroko inbertsioa izan dute guztira.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

 **anboto**
kide

BERRIA!

BED'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

OSASUN ETXEA

- Zetoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novoline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiloko Urkiolil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketa guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

MAIATZEKO ZOKKETAK

*Zozketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



Basa take away
jaketxeko bowl
osasuntsu berri bat
opari, gozo jateko
zure burua zainduz.

IRABAZLEAK

Herri Urrats-eko opari sorta:

Iratxe Garcia

Basa-ko menua:

Olatz Baños

Errigora-ko otzara:

Iñaki Iturricastillo

Xiberu tabernan gosari bikoitza:

Itziar Solozabal eta Marije Guezala

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Jokin Pinatxo da Janus Lester taldeko liderra. GINMUSICA

Janus Lester eta beste hamaika ekitaldi Mañariko Kultur Astean

Aurten, egitaraua plazatik harago zabalduko dute:
Angurretara, tabernetara eta kultur etxera

J.D. MAÑARIA

Maiatzaren 9tik 18ra bitartean, Mañariko Kultur Astea egingo da, eta aurtengo edizioa berrikuntza nabarmen batez dator: egitaraua plazatik harago zabalduko dute, herriko zenbait toki aktibatzeko, udaleko iturrien esanetan.

Horrela, Angurreta eta herriko zenbait taberna hainbat ekitaldiren eszenatoki bihurtuko dira. Esaterako, Jokin Pinatxoren Janus Lester taldeagaz elkarriketa musikatua antolatu dute Angurretan. Arritoki eta Errekondo jatetxeek Andoni

Ollokiegiren eta Rukula taldearen kontzertuak hartuko dituzte, hurrenez hurren.

Eskaintzan ere, musikaz harago, aniztasuna da nagusi. Tio Teronen Semeak da horren adibide, musika, dantza eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna; edo Zuhaitz Gurrutzagaren *Futbolistok* bakarriketa saio eza-guna.

Eskaintzaren barruan, Mañariko Kirikiño abesbatzak sorturiko *Kantuez, kontuez... urtea bota* proiektua ere nabarmentzekoa da. Angurretan izango da (euria bada, plazan).

EGITARAUA

Maiatzak 9, barikua

- **19:00** Antzerkia: 'Hilda da Jainkosa', plazan
- **21:00** Ikuskizuna: Lekittoko Deabruak

Maiatzak 10, zapatua

- **17:30** Musika: Esan ezin, Errekondon
- **19:00** Musika: Andoni Ollokiegi, Arritokin
- **20:30** Musika: Sakamantekas, plazan

Maiatzak 11, domeka

- **13:00** Dantza: Tio Teronen Semeak, plazan
- **18:00** Antzerki musikatua: 'Playlist', kultur etxean

Maiatzak 14, eguaztena

- **18:00** Elkarriketa musikatua: Janus Lester (Jokin). Angurretan

Maiatzak 15, eguena

- **19:00** Bakarriketa: 'Futbolistok', Zuhaitz Gurrutzaga. Kultur etxean

Maiatzak 16, barikua

- **17:00** Ipuin kontaketa: Saroa Bikandi. Kultur etxean
- **20:00** Musika: Rukula. Errekondon

Maiatzak 17, zapatua

- **19:00** 'Kantuez, kontuez... urtea bota' proiektua, Angurretan

Maiatzak 18, domeka

- **10:00** Azoka

Atxondoko Gaztetxeak jasandako erasoa salatu dute

Gaztetxeko biltegiaren ondoan zegoen materialari su eman zioten eta teilatu zati batek ere su hartu zuen



Gaztetxea, eta ondoan, autobus geltoki zaharra, biltegi modura erabiltzen dutena.

J.D. ATXONDO

Atxondoko Gaztetxeari eraso egin ziotela salatu dute bertako kideek. Joan zen barikuan, 12:00 aldera, Gaztetxeko biltegi—sasoi bateko autobus geltokia—ondoan zegoen materialari su eman zioten, eta, ondorioz, teilatu zati batek ere su hartu zuen. Gazteek eurek amatatu zuten sua, su-itzal-gailu bat erabiltzaileak bertaratu zirenerako garrak amatatuta zeuden, baina badaezpada teilatu ingurua ureztatu zuten, sua guztiz amatuta zegoe-la segurtatzeko. "Ez dugu gure jarduna oztopatuko duen erasorik onartuko", salatu dute Gaztetxeko kideek sare sozialetan.

Joan zen barikukoa ez da lehenengo kasua. Orain hilabete, goizaldean, Gaztetxearen kapaldeko bankuari su eman zioten.



Larrakozelaiko argazkia.

Iurretakoko jokalariai babesa adierazteko protesta, bihar

Protesta ekitaldia bihar izango da, maiatzak 3, Larrakozelain. Gaia epaitegian dago, judizializatuta

M.Z. IURRETA

Joan zen domekan Iurretako futbol taldeak ANBOTOrri baieztatu zionez, jubenilen taldeko jokalariai batek apirilaren 20an eraso bat jasan zuen taldekide baten aitaren partetik. Jubenilen taldea Marenostrum Cup txapelketa jokatzen zegoen Saloun (Tarragona). Eraso hori salatzeke eta jokalariai babesa adierazteko, futbolariaren taldekide batzuek protesta ekitaldira deitu dute maiatzaren 3rako, Larrakozelain.

Jose Antonio Sagarnaga taldeko presidenteak azaldu zuen kluba gaia aztertzen dabilela, eta "edozein erasoren kontra" daudela adierazi. "Iurretako Kirol Taldeak indarkeria mota guztiak gaitzesten ditu, eta oraindino gehiago adin txikiko baten kasuan", gehitu zuten klubeko kideek komunikatu bidez.

Bestalde, taldeko zuzendaritzako kideek nabarmendu dute Iurretakoko gazte batzuek eta euren gurasoek antolatutako Salou-

rako bidaia, eta klubak egin duen "gauza bakarra" klubaren izena eta ekipazioa uztea izan dela. "Beraz, erantzukizun oro adin txikikoen gurasoena eta taldeagaz joan diren arduraduna da", gaineratu dute.

Iurretako Udalak eta EH Bilduk "babes osoa" adierazi diete biktima eta haren familiari. "Edozein indarkeria mota irmo gaitzesten dugu, fisikoa zein berbazkoa", esan du udalak.

Horrez gainera, EH Bildu kritikotik agertu da klubak izandako jokabideagaz, eta zuzendaritzak erakutsitako jarrera salatuta du. "Publikoki salatu gura dugu Iurretako Kirol Taldearen zuzendaritzak erakutsitako jarrera. Kirol taldeko arduradun bakar bat ere ez da adin txikikoagaz edo bere ingurukoekin hartu-emanetan ipini, eta, gainera, taldeko jokalarien aurrean bertsio baten alde egin dute, eraso jasan zuen gazteari eta Saloun izan ziren gurasoei entzun barik", gaineratu dute.

Iurretako Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztu du

Euskaraldian izena emateko eta txapak jasotzeko mahaia ipiniko dituzte maiatzaren 5ean eta 9an



Euskaraldia sustatzeko hamaika enbaxadoreen aurkezpen ekitaldiko irudia. ERRIME

Aritz Otxandianok bere etxearen aurka egindako eraso salatuta du

Fagor Taldearen iraunkortasun arduradunak bere etxera bengala bi jaurti zituztela salatu zuen apirilaren 23an

Joseba Derteano OTXANDIO

Aritz Otxandianok (Otxandio, 1979) bere etxearen aurka egindako eraso salatuta zuen joan zen apirilaren 23an. Bluesky sare sozialearen bitartez, 01:00 inguruan gertaturikoa deskribatu zuen. "Gure etxearen kontra bengala bi jaurti dituzte. Testiguen arabera, 7-10 lagun izan ziren eta kotxe bitan ihes egin zuten". Aurretik ere "mehatxuak" eta "pintadak" jasan dituela kontatu zuen, baina ez joan zen asteko moduko gertaerarik. "Nire familiaren aurka



Aritz Otxandiano Kanpo. GOIENA

A. Basauri IURRETA

Geroago eta gertuago dago Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa praktikoa. Durangaldeko gainerako herrietan legez, Iurretan ere aurkeztu dituzte ekimena sustatuko duten hamaika enbaxadoreak. Honako hauek osatzen dute hamaikakoa: Marga Aiartzaguena, Bixen Derteano, Antton Mari Aldekoka-Otalaria, Yasmin Hawari, Jesus Zenikaonandia, Yomara Crespo, Lurdes Totorikaguena, Alaitz Gerendiaga, Andoitz Otadui, Mirren Arroitauregi eta Udane Azkorbebeitia.

Datorren astean, Euskaraldian izena emateko eta txapak jasotzeko mahaia ipiniko dituzte. Maiatzaren 5ean, Maiztegi herri eskolan ipiniko dituzte, 16:00etan; maiatzaren 9an, Dantzari plazan, 18:30ean.

modu honetara eraso egiteak muga guztiak gainditzen dituela iruditzen zait", adierazi zuen.

Erasoen atzean berriztagarrien inguruan duen jarrera dagoela susmatzen du Otxandianok. Hala ere, gai honetan duen posizioari "konbikzio osoz" eusten jarraitzeko asmoa du. Fagor Taldearen iraunkortasun ardura-dunaren ustez, "Trump-en kapitalismo fosilaren aurrean eskala guztietako berriztagarrien hedapen justu eta ordenatua oinarri duen eraldaketa ekosoziala da alternatiba".

Aritz Otxandiano Fagor Taldearen iraunkortasunerako arduraduna da eta Otxandio alkatea izan zen 2003-2011 epealdian. Pello Otxandiano anaia du, azken hauteskundeetan Gasteizko Legebiltzarrerako EH Bilduren lehendakari gaia.

GOI-MAILA:

- Bioteknologia - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

- Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan



LHEZIKETA

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknika
- Elikagaiak elaboratzeko teknika
- Soldadura eta galdaragintza
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

Ate irekiak

MAIATZAK 8


Afora mugatuak, EMAN IZENA!

Aurrematrikula

MAIATZAK 5 - 23

lea artibai ikastetxea

MARKINA-XEMEIN





ANBOTOk Udaberriko argazki lehiaketa ipini zuen martxan apiril erdialdean, eta parte hartzeko gonbita egin zien bere irakurleei. Dozenaka argazki jaso ditugu eta lehiaketa bozketa faserara pasatu da orain. Irabazlea webguneko bozketa bidez erabakiko da. Maiatzaren 8ra bitartean, irakurleek euren argazkirik gogokoena aukeratu dezakete.



UDABERRIKO HASERBREAK

Pisu libreko asto proben sariketa Mallabian

MALLABIA Asteburu honetan pisu libreko asto proben 17. sariketa jokatu da Mallabian. Ekitaldia maiatzaren 3an eta 4an egingo da, 18:00etan. Zapatuan, Artabilla, Irazola, Torrontegi Eraiketak eta Salvador Erleagaren asteko parte hartuko dute. Domekan, Unai, Mugika eta Imanol Erleagarenak izango dira protagonistak.



ABADIÑO KO FA.

Aparkaleku bertikala, EAJren proposamena

ABADIÑO Abadiñoako EAJk Traña-Matiena auzoan aparkaleku bertikal bat eraikitzea proposatu du. Arzubiako parkingean egingo litzateke eta 100 bat aparkaleku berri sortuko litzuzke, jeltzaleek ohar batean azaldu dutenez. Diotenez, "inguru osoan trafikoa arintzeko eta mugikortasuna hobetzeko" aukera emango luke. EAJk eskaera kontuan hartzea eskatu dio gobernu taldeari, eta "proiektuaren bideragarritasunean lanean jartzea".



Ines Garcia Revueltak 100 urte egin ditu

DURANGO Ines Garcia Revuelta durangarrak 100 urte egin zituen apirilaren 27an. Familiagaz batera ospatu zuen urteguna, Durangoko Gran Hotelean. Mireia Elkoroiribe alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea ere bertan izan ziren, eta zuzenean zoriundu zuten Ines Garcia, Durangoko herritar guztien izenean.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen araberazuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.

Publicitate: Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano
Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala
eta Irati Otadui Maiztegi.

Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua




ZENBATU

Fruta bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?




PAPIROFLEXIA




LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu.



LABIRINTOA



"Gertatzen direnei adi egonez idatzi dut"

AINHOA URIEN TELLETXE IDAZLEA

LITERATURA Ainhoa Urien idazle abadiñarrak 'Ehun zaldi trostan' ipuin sorta argitaratu du Elkar argitaletxeagaz. Datorren egunean, maiatzak 8, Durangoko Hitz liburu dendan aurkeztuko du lan berria, 19:00etan

Aritz Maldonado IURRETA

Ignacio Aldekoa literatur beka irabazi eta gero, Ainhoa Urien idazle abadiñarrak 'Ehun zaldi trostan' lana plazaratu du. 2020an *Poesia zaurien ukendu: Xabier Leteren arrastoan* saiakera idatzi eta gero, fikzioa baliatu du ipuin sorta berria idazteko. Aitane Goñiren ilustrazio soil batzuk daude ipuin bakoitzaren hasieran. Bost urte hauetan, ofizioa garatu duela azaldu du idazleak. "Bigarren liburu honetan, lehenengoan igarri zitekeen ahots propio horretan berretsi naizela esango nuke", gaineratu du.

Aste batzuk dira liburua plazaratu duzula. Pozik liburuak izandako harreragaz?

Bai, gustura. Idazterakoan, idatzi dezakezu zuretzat, jakina, baina argitaratzea erabakitzen duzunean ahalik eta jenderik gehienarengana heltzeko helburua izaten duzu. Hedabideetan ere oihartzuna izaten ari da. Badut gogoia jendeak irakurri dezan. Beste diziplina batzuetan, publikoaren erantzuna berehalakoa da; bertsolaritzan edo zinemari, adibidez. Liburuekin, ostera, denbora behar da irakurtzeko. Lehenengo feedbackak jaso arte, desertu moduko bat igaro behar izaten duzu. Apurka nabil iritzi horiek jasotzen, eta Hitzeko aurkezpenaren ondoren gehiago izango direlakoan nago.

Oso bizkor doa dena. Gainera, asko argitaratzen da eta iraungitze datagaz kaleratzen dela dirudi. Horrek, ahaztua izateak, bertigo apur bat ere ematen dit. Urtebeteko lana da hau, dena eman dut hau idazten, eta hainbeste egin eta gero, merkatuaren abiadurak irensteak zelanbaiteko beldurra ematen dit. Esango nuke antsietate moduko bat dugula denok aktualitateagaz.

Bulkadaka idazten duzula nabarmendu izan duzu. Bateragarria da bekaategaz publikatzeagaz?

Beka jaso izana lagungarria da argitaratzeko, ez diruagaitik

bakarririk; lagundu ere egiten du argitaratze orduan. Eta, gainera, epeka ondo funtzionatzen dut. Batzuentzat presioa izan daiteke, baina niretzat ez. Nik eskuz

idazten dut, bulkadaka, eta gero jesartzen naiz ordenagailuaren aurrean, ideiei forma emateko, idazteko. Epeak bete arren, nire bizitza normal egiten jarraitzen dut, eta, hain justu, liburuak jasotzen dituen gauza asko ematen dizkit horrek; horrela, sortuntza elikatzen dut, zelanbait esateko. Adi egoten naiz, irudi batek, elkarriketa batek, idaztera eraman nazakeelako. Annie Ernauxek esaten zuen batzuetan jesarri eta idatzi ondoren ikusten duzula zein helburugaz idatzi duzun. Horixe egin dut nik ere; idatzi, eta idatzi ondoren zentzua eman. Beka urtebete eskasekoa izan da, baina aurretik lan dezente eginda nuen. Ez da izan zerotik hasten den gauza bat. Gertatzen diren gauzei adi egotea da idaztea niretzat.

Eroso aritu zara fikzioan?

Udalbiltzatik jasotako bekagaz fikziozko ipuin bat publikatu nuen, eta Booktegia ere bi publikatu ditut, baina liburu modura lehenengo ariketa izan da hau; beraz, entrenatuta harrapatu nau. Fikzioak babesgune bat ematen dizu nire ustez, existitzen ez diren gauzak eraiki ditzakezulako. Errealitateko ekoitzi arren, sortzeko eremu zabalago bat ematen dizu, esan gura duzun hori modu egokian esateko. Fikziotik idaztean, baina, ardura bat ere badugu, ez dakit errealtateari leial izateko, baina bai errealtatea kontuan hartzeko, fikzioak koka-

pen bat eskatzen du eta. Horeroso sentitzen naiz gauza batzuk esateko. Liburuan hausnarketa pildora batzuk daude, eta horiek mahaigaineratzeko, pertsonaiak eraikitzeak aukerak zabaldu ditzkit. Hausnarketa bere horretan idatzi daiteke, baina fikzioan pertsonaia batean gorpuztu daiteke, eta irakurlea hor identifikatua sentitu daiteke. Gainera, uste dut literatura ere badela jendeak gozatzen.

Eta zer kontatu gura zenuen?

Batez ere, hausnarketa asko nuela konpartitzeko, eta ipuin haue-tan horiek konpartitzeko modua topatu dut. Liburuan Irene da ardatza, nahiz eta ez den beti agertzen; forentse lan moduko bat egiten du, pertsonaien jokabide eta erabakiak analizatzen dituelako. Bere inguruan dagoen munduan eraiki ditut giro, pertsonaia eta eszena batzuk, esateko nituenak esaten laguntzeko. Hartu-emanei loturiko hausnarketa asko dago, adibidez. Bai parez parekoekin harremanetzeko moduei buruzkoak, baita sozialki posizio desberdin batean dagoen jendeagaz ere; zelan posizionatzen garen, zelan jokatzeko dugun, egokitasuna zelan kalibratzen dugun edo politikoki zelan jokatzeko dugun. Errua eta errukia bata bestetik hain urrutiti ez daudela ikusi dut, adibidez. Animaliekin dagoen hartu-eman ere agertzen da. Bestalde, identitatearen bilaketa konstante bat ere badago. Pertsonaia guztiak liburu osoan zehar etxe baten bila daudela esango nuke, ez etxe fisiko baten bila, egoteko leku baten bila baino, izen baten bila, babesleku baten bila. Identitate baten bila ibiltzea edo identitate bat atzean utzi gura hori ere hartu-eman moduagaz lotzen dut. Eta horiek kokapen politiko konkretu batetik egin gura genituen.

Dena muturretatik bizi behar dela dirudien garai honetan, tartean bizitzeari buruz idatzi duzu.

Gerora konturatu naiz liburuak gauza biren artean dabilela beti, leku biren artean, edo joan-etorrian, edo zerbait topatzen edo zerbait atzean uzten. Beraz, bazeagoen bikoan amalgama bat. Azala ere hortik doa, biko horiek non elkartzen diren erakusten du, elkarriketak non jartzen diren, eta hortik zer sortu daitekeen. Tarteko leku horretan gauza interesgarri asko dagoela erakusten du liburuak.



Ainhoa Urien, Iurretan.

"FIKZIOAK BABESGUNE EMATEN DIZU, EXISTITZEN EZ DIREN GAUZAK ERAIKI DITZAKEZULAKO"

Heriotza ardatz, bizitzaz berba egiteko

ANTZERKIA Kamikaz kolektiboak 'Renata' azken lana taularatuko du Zornotza aretoan; hamar urteko ibilbidean ontzen duen bederatzigarren lana da; maiatzaren 9an izango da emanaldia, 20:00etan, eta sarrerak salgai daude webgunean, 8,50 euroan

A. M. ZORNOTZA

Hamar urteko ibilbidean, gai sakonak umoretik jorratu daitezkeela erakutsi du Kamikaz kolektiboak. *Renata* antzezlanak heriotza du ardatz, baina kolektiboko kideen berbetan bizitzaz berba egiten du, batez ere. "Gai sakonak eta potoloak hartzen ditugu, kasu honetan heriotza, gizarteak gai horretan duen hutsunea betetzeko eta sufrimendua aldentzeko. Gai sakona da, baina umoreak horri buruz berba egitea ahalbidetzen digu, eta, aldi berean, baita kritika zorrotz bat egitea ere", azaldu du Amancay Gaztañaga aktoreak; Gaztañagaz gainera, Iraia Eliasek, Erika Olai-zolak eta Xanti Agirrezabalak parte hartu dute lan honetan.

Maiatzaren 9an izango da emanaldia, 20:00etan. Sarrerak Zornotza aretoko webgunean daude salgai, 8,50 euroan.

Kamikaz kolektiboko kideak "pozik" daude hamar urteko ibilbideagaz. "Une oro ikasten



Kamikaz kolektiboa. KAMIKAZ KOLEKTIBOA

gabiltzan sentiazioa dugu. Hasi berriaren mentalitatea mantentzea oso garrantzitsua da, ikasle begirada horri eustea, eta aldi berean jakitea bizkar-gainean ibilbide itzela dugula",

gehitu du Gaztañagak. Esate baterako, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* lanagaz Donostia Saria irabazi zuten, eta 50 bat emanaldi egin zituzten Euskal Herrian zehar.



'Ombuaren itzala'-ren grabazioa.

Bisquerten 'Ombuaren itzala' Elorrioren proiektatuko dute

ZINEMA Aktore eta zinemagile gipuzkoarrak Pello Mari Otañoren bizitza eta lana islatu ditu pelikulan

A. M. ELORRIO

Patxi Bisquert aktore eta zinemagile gipuzkoarrak zuzenduriko *Ombuaren itzala* filma Elorrioko Arriolan emango dute asteburuan. Pelikulak Pello Mari Otaño (Zizurkil (Gipuzkoa), 1867 - Rosario (Argentina), 1910) bertsolariaren bizitza eta lana aztertzen ditu; Otañok hainbat bider emigratu zuen Argentina-ra, eta arrasto sakona utzi zuen han. Hain zuzen ere, ekoizpena elkarlanean egin dute herrialde amerikarreko eta Euskal Herriko herritarrek. Pelikulak bertsolari zizurkildarraren bizitza-

ko hainbat pasarte batzen du, eta Zizurkilen bertan proiektatu zuten estreinakoz. Gero, beste hainbat tokitan ere egin dituzte emanaldiak; besteak beste, Zornotzan. Otaño oso garrantzitsua izan zen, bai bertsolaritza bai euskalgintza, eta lan handia egin zuen bertsoak sortzen eta bertsolaritza biziberritzen. Hain zuze ere, pelikula hau egitearen helburuetariko bat Otañoren bizipenak ahalik eta jenderik gehienari hurbiltzea da. Elorrioko emanaldiak zapatuan, domekan eta astelehenean izango dira, 20:00etan.



GAI LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO EHU-KO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

Itzali eta piztu

Pizkundea.

Asteon, ustekabea, argindarra joan da gure herrian. Ez bakarrik hemen, baita atzerrian ere: Espainian, adibidez. Kolapso energetikoa esan dute irratian. Bizpahiru orduko itzalaldia. Aski eguneroko zurrumbilatik ateratzeko. Hankaz gora astelehena. Betaurrekoak aldatu behar derrigor, eguerdiari beste begirada batekin begiratzeko.

Ordutik ametsak ere espero ez dituzunekin beteta dotoz: osorik emakumeek osatutako gobernu bilkura egin da gertatutakoa argitu eta arduradunei dagozkien erantzukizunak eskatzeko. Elektrizitate korporazio handien diru-gosea legez kanpo utzi dute. «Fenomeno meteorologiko arraroak» eta «osilazio termikoa» bezalako eufemismoak debekatu zaizkio botereari, erakunde zientifikoen jardunari eta klima aldaketari lotuta baino ezingo dira erabili aurrerantzean. Salbuespen bakarra: herritar xeheak inolako murrizketarik gabe baliatu

"HISTERIA ITZALI ETA HISTORIA PIZTUKO DUEN KORRONTE INBERTSOREA BEHAR DUGU, ENERGIA EZ-ESTATIKOA"

ditzake berbak. Aberatsak joko kanpo geratu diren astearte batean munduratu baikara pertsona libreak. Ez dago pobreziarik, inor ez da mespretxatua bere azal kolorearengatik edo kontu korronterik ez edukitzeagatik. Poliziarengatik babesteko kitak bidali dizkigute, agente guztien berrasmatze profesionala inplementatu eta komisariak desagertu arteko behin-behineko neurri gisa. Asteazkenerako hutsik dauden etxeen jabeak bidali dituzte zubipera, eta aterperik gabekoak ez dira gehiago etxerik gabe biziko. Atzo, ezustean, pentsiodunen batzar batean desegin dute kapitalismoa, eta gaur ekonomia zaintzan eta elkartasunean oinarritzen da. Planeta berreskuratze bidean da.

Zer gehiago pasatuko da bihar?

Histeria itzali eta historia piztuko duen korronte inbertsorea behar dugu, energia ez-estatikoa.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 2

ABADIÑO Sanprudentzioak
San Prudentzio 2025 Xake Txapelketa, 17:00etan, Pino plazan. San Prudentzio Esku Pilota Txapelketa, 17:00etan, Parxis txapelketa, 17:00etan, Adinekoen elkartean. Kontzertua: Korroxion + Lionels + Reincidentes, 22:00etan, Traña plazan.
Traña-Matiena auzoan.

DURANGO Erakusketa
'Ikusi Makusi-Beittu' erakusketa kolektiboaren inaugurazio ekitaldia (Beittu Art Factory akademia).
Ezkurdi aretoan, 18:00etan.

DURANGO Erakusketa
Fernando Beorlegiren lanak. *Arte eta Historia Musean, ekainaren 1era bitartean.*

ELORRIO Dantza
'Moor Krad' (Ertza konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Kontzertua
Lee Junior.
Korta tabernan, 20:30ean.

IURRETA Santikurutzak
Maiztegiko umeen dantza saioa, 17:30ean. Gero, trikipoteoa, herriko bertsolari gazteekin.
Goiuria auzoan.

ZAPATUA 3

ABADIÑO Sanprudentzioak
Herri bazkaria, 14:30ean, frontoian. Ondoren, kuadrillen arteko jolasak. Mozorro kalejira Goxo fanfarreak alaituta, 19:00etan, Trañabarrenen. 'Deabruak gara' ikuskizun piroteknikoa (Lekittoko Deabruak), 22:15ean, Traña plazan. Erromeria: Berriztu + Maiatz, 23:00etan, Traña plazan.
Traña-Matiena auzoan.

BERRIZ Lehiaketa
XXVI. Kaleko Pintura Lehiaketa. Irabazleak 700 euroko saria lortuko du; 2.ak 600 eurokoa, eta 3.ak 500 eurokoa (Oinarriak: www.berriz.eus).
Kultur Etxean, 08:30ean.

DURANGO Jaiak
Ibilgailu klasikoan VI. elkarretaratzea, 10:00etan. Dj Marito, 18:00etan.
Herria tabernaren inguruan.

IURRETA Bizikleta irteera
Landara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurretan, 08:30ean.

IURRETA Santikurutzak
Iurretako dantzarien saioa, 12:30ean. Ondoren, harrijasotzaile gazteen saioa: Izei Abendidar, Aritz Abendibar eta Izadi Agirre. Kantu bazkaria Egundo I taldeagaz, 14:30ean. (Autobusa Maspetik, 12:15ean, 14:15ean etan 19:30ean. Goiuriatik bueltatzeko, 00:30ean).
Goiuria auzoan.

IURRETA Kontzertua
Jardin Inferno.
Korta tabernan, 20:30ean.

ZORNOTZA Antzerkia
'Moko, Indalencio Bizkarrondo-Bilintx' (Gorakada Teatroa).
Zornotza Aretoa, 17:30ean.

DOMEKA 4

ABADIÑO Sanprudentzioak
Umeentzako jolasak, Traña plazan (11:00-13:30/ 16:00-19:30). Euria bada, frontoian. Perretxiko-pintxo dastatzea, 13:30ean, Pinoko plazan. Mus txapelketa, 17:00etan, Taberna Zarran. Moda desfilea, 18:00etan, Errota

DURANGO Dantza
La puta respetuosa, Jean-Paul Sartrek idatzi eta 1946an Parisen estreinatutako *La putain respectueuse* obraren dantza garaikiderako egokitzapena aurkeztuko du Hotzikara konpainiak, asteburuan.
Maiatzak 3, zapatua, San Agustin kulturegunean, 19:00etan.

kultur etxean (De Norte a Sur taldea eta San Prudentzio nagusien elkarte).
Traña-Matiena auzoan.

ABADIÑO Kontzertua
Sermond's.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.

ELORRIO Umeentzako antzerkia
'Oh-Pera' (Circo Txosko).
Arriola antzokia, 17:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Ixuara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurretan, 08:30ean.

MARTITZENA 6

IURRETA Literatura
Iurreta berbeta eta literatura: sator hegalaria (Xabier Boveda eta Joseba Sarrionandia) liburuaren komentario literarioa egileekin.
Bibliotekan, 18:30ean.

EGUAZTENA 7

DURANGO Bisita Gidatua
Fernando Beorlegiren erakusketaren bisita gidatua (gaztelaniaz).
Arte eta Historia Musean, 18:00etan.

BARIKUA 9

ABADIÑO Sanprudentzioak
Txiki merienda, 16:45ean, merkatu plazan. (Txartelak Errota Kultur Etxean).

Disko-dantza, 17:15ean. Txintxon txapelketa, 17:00etan, adinekoen elkartean. San Prudentzio esku pilota txapelketako finalak, 18:30ean. Bertso saioa: Txaber Altube, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Ane Labaka, 20:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Igor Galarza. (Gonbidapenak Errota kultur etxean). 80ko hamarkadako gaua: DJ Iver, 22:00etan, Traña plazan.
Traña Matiena auzoan.

IURRETA Irakurraldi girotua
Iurreta berbeta eta literatura: sator hegalaria (Xabier Boveda eta Joseba Sarrionandia) liburuaren irakurtaldia. Egileek parte hartuko dute.
Ibarretxe kultur etxeko aretoan, 11:00etan (LH eta DBHko ikasleekin) eta 19:00etan (irekia).

IURRETA Kontzertua
Zoe Igartiburu (akustikoa).
Abadetxean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Bonny Jack.
Korta tabernan, 20:30ean.

MAÑARIA Antzerkia
'Hil da jainkosa' (Ainhoa Etxebarria eta Nerea Gartzia).
Plazan, 19:00etan.

MAÑARIA Ikuskizuna
Lekittoko Deabruak.
Plazan, 21:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'Renata' (Kamikaz kolektiboa).
Zornotza Aretoa, 20:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Los aitas
Domeka 4: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Thunderbolts
Barikua 2: 18:00, 20:30.
Zapatua 3: 17:00, 19:00, 21:30.
Domeka 4: 17:00, 19:30.
Astelehena 5: 17:45, 20:15.
Martitzena 6: 17:45, 20:15.
Eguaztena 7: 19:00.

La buena letra
Barikua 2: 18:00, 20:30.
Zapatua 3: 19:00, 21:30.
Domeka 4: 19:30.
Astelehena 5: 18:00, 20:15.
Martitzena 6: 18:00, 20:15.
Eguaztena 7: 19:00.

The end
Barikua 2: 19:00.
Zapatua 3: 19:30.
Domeka 4: 19:30.
Astelehena 5: 18:00.
Martitzena 6: 18:00.

Una noche en Zoopolis
Zapatua 3: 17:00.
Domeka 4: 17:00.

La rondine
Eguaztena 7: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Ombuaren itzala
Zapatua 3: 20:00.
Domeka 4: 20:00.
Astelehena 5: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Un funeral de locos
Barikua 2: 20:00.
Zapatua 3: 20:00.
Astelehena 5: 20:15.

Mision Panda en Africa
Domeka 4: 20:00.

No other land (JBGA)
Martitzena 6: 20:15.





Gudiker Alberdi, Gaizka Larringan eta Carlos Gomez Anbotopekoren kamisetekin.

"Gure artean ez dago egorik; taldekideak eta lagunak gara"

GUDIKER ALBERDI, GAIZKA LARRINGAN ETA CARLOS GOMEZ ANBOTOPEKO

SASKIBALOIA Durangoko Anbotopeko saskibaloia taldeak 50 urte egin ditu eta ekainaren 7rako bazkari bat antolatu dute jokalaria eta jokalaria ohientzat. Izen ematea hasita dago

Joseba Derteano DURANGO

Gudiker Alberdi Arrieta (Durango, 1976), Gaizka Larringan Iñurrategi (Iurreta, 1982) eta Carlos Gomez Etxeberria (Durango, 1972) Anbotopeko taldearen mende erdiko ibilbidearen lekuko izan dira, belaunaldirik belaunaldi. Gomezek sei urte eman zituen klubean, 90eko hamarkadan. Ondoren, Alberdik 17 urte luzez jantzi zuen Anbotopekoren kamiseta. "Horrela ditut belaunak", dio umorez. Larringan ere ez da atzean geratzen, 18 urte daramatzalako

taldean, aldiro "urte sabatikoak hartuta", zehaztu duenez. Hiru belaunalditako oroitzapen eta bizipenekin klubaren ibilbidea errebasatu dugu.

Zelan izan zen klubaren sorrera?

Gudiker Alberdi: 40. urteurreneko bazkarian kluba sortu zutenek kontatu zuten. 1974a zen. Lagun kuadrilla batek areto futboleant aritu gura zuen, eta, Tabirako kantxa doan erabiltzeko, klub bat sortu behar zuten. Azkenean, saskibaloia taldea sortu zuten areto futboleko bari, ez dakit ondo zer-

gaitik. Anbotopeko izenaren istorioa kurioa da. Kontatu zutenek, lagun baten aitak aterpe bat zuen Zabalaundi eta Asuntza artean, eta hara joaten ziren batzuetan. Anbotoren magalean zeuden, Pol-Poleko iturritik gertu, eta batek izen hau proposatu zuen: Anbotopeko Iturribidegane All Star. Federazioan izena luzeegia zela esan zieten eta Anbotopeko geratu zen.

Hirurak Tabirakotik heldu zineten Anbotopekora. Jokalari askok egin duten bidea da. Zein da joera horren arrazoia?



Anbotopekoko lehenengo urteetako talde baten familia argazkia.

Carlos Gomez: Saskibaloia beste modu batera gozatzeko aukera eskaini zidan. Aldaketa bat izan zen, diziplina maila batetik eta sistemez betetako entrenamenduetatik dibertsio hutsagaitik jokatzera pasatu nintzen. Gure entrenamenduak lagunarteko partiduak ziren. Horrek ez du esan gura presiorik ez genuenik: irabaztea gustatzen zitzagun.

G.A.: Anbotopekoren esentzia honako hau da: bestelako prentzio eta aspirazioen gainetik, saskibaloia gustuko dutenei kirol honegaz gozatzeko aukera eskaintzea. Gero, nire sasoiaren jokalaria guztiek jokatzeko zuten. Gutxi asko, denek jokatzeko zuten partiduetan. Horrek taldea batu egiten du, giro ona sortzen du.

Gaizka Larringan: Anbotopekon hasi eta gauza bat deigarria egin zitzaidan: ez zegoela entrenatzailearik. Behin, batek entrenatzaile aritu gura zuen eta ezetz esan genion (barrez). Sekula ez dugu jokaldi konkretu bat entrenatu. Jakina, saskibaloiko oinarriak eta dinamika ezagutzen ditugu gure aurreko klubetatik. Carlosek esan duen moduan, gure entrenamenduak lagunarteko partiduak dira. Gure artean ez dago egorik, inor ez dago inoren aurretik. Taldekideak eta lagunak gara. Beste klubetako jokalaria askotan etorri dira gure entrenamenduetara; baita talde batean inoiz ibili bakoak ere.

G.A.: Belaunaldi askotakoak, gainera. 20 urteko gazteak eta sekretu guztiak dakizkiten 60 urtekoak. Lagunarteko batzuetan zenbat gozatu dudana! Denak lehiakorrak, irabazteko grinagaz eta pike sanoagaz.

Anbotopeko Lehenengo Erregionalean dabil. Behin baino gehiagotan mailaz igotzeko aukera izan duzue, baina bertan geratu zarete. Zergaitik?

G.A.: Hainbat arrazoi dago. Euskadi mailara igotzeko eskakizun bat harrobiko taldeak izatea da eta guk ez dugu hori ondo eramateko azpiegiturarik. Gero, urrunago bidaiatu behar genuke, Euskadi osotik. Inoiz izan dugu igotzeko tentazioa, baina gaudenean jarraitzea erabaki dugu.

Anbotopekok nesken talde bat ere izan zuen.

G.A.: Bai. Berriagoa da, ia XXI. mendean sortu zen. Urte batzuk iraun zuen. Aurrera begira, nesken taldea berreskuratzeko gustatuko litzaiguke.

Une honetan, zelan dago Anbotopeko?

G.L.: Denerik dugu: 28 bat urteko jende gaztea dugu, eta urteurrenaren harira taldera bueltatu diren beterranoak ere bai. Dena dela, jokalaria batzuek utzi egingo dute aurten, eta atea zabaltzeko saskibaloia probatu gura duten denentzat. Neska-mutilak, honako helbide elektronikoak erabili daitezke gugaz hartu-emanetan jartzeko: amboto@bizkaiabasket.com

Zelan joan da denboraldia?

G.L.: Ligan Laugarren sailkatu eta Lauko Finalerako sailkatu gara. Final hori Durangon jokatu da, Tabirako kantxan, maiatzaren 9tik 11ra.

Urteurreneko bazkaria ekainaren 7an da, Gran Hotelen. Zelan sortu zen ideia?

G.A.: Sorburua 25. urteurreneko bazkarian dago, Luis Zabala orduko presidenteari antolaturikoa. Jendeak ederto pasatu zuen eta 40. urteurrenean beste bat egin zen. 70 lagunetik gora bat ginen. Gero, 50. urteurrenaren antolatzea ere erabaki dugu. Jokalari eta jokalaria ohi guztientzat dago zabalik. Interesa dutenek Durangoko Xixilu tabernan eman dezakete izena.

Mailari eusteko hil ala biziko partidua zapatuan

FUTBOLA Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, Amorebietak mailari eusteko esperantzari eusten dio azken garaipenari eskerrak, baina matematikak kontra ditu. Salbazioa bederatzi puntura du, eta hamabi puntu geratzen dira jokoan

Joseba Derteano ZORNOTZA

Amorebieta futbol taldea Lehenengo Federazio Mailatik jaitsi daiteke asteburu honetan, zapatu arratsaldean Barakaldon jokatu duen partiduan. Lehen Federazio Mailan, hamabi puntu —lau jardunaldi— geratzen dira jokoan, eta salbazioa bederatzi puntura dago. Amorebietak nahitaez irabazi behar du, eta jaitsieraren ertzean dauden Ses-tao River eta Unionistas taldeen emaitzak ere bere alde izan behar ditu. Kontua gatz dagoela esatea labur geratzea da.

Natxo Gonzalez entrenatzaileak argi du "mirari" bat behar dutela mailari eusteko, baina ez dute zailtasunei amore emateko asmorik. "Esperantza txiki horri eusten diogu eta azken unera arte borrokatuko gara. Taldea dena ematen dabil, eta, hain egerra zailan, niretzat garrantzitsua da hori", adierazi du. Bizirik egonda esperantza dagoela dio esaerak eta horri hel-



Amorebietako jokalariek Barca B-ren kontrako gol bat ospatzen. @SDAMOREBIETA

du beharko diote jokalariek. Horretarako, joan zen asteburuko jarrerari eustea funtsezkoa izango da. Barca B taldea 0-2 menderatu zuten etxetik kanpora, Jon Ander Amelibiaren eta Iñigo Muñozen gol banari eske-

rrak. Azken boladako partidurik onena jokatu zuten. Barakaldo sailkapenaren erdian dago eta ez du askorik jokoan. Gainera, ez dabil bolada onean. Azken bost jardunaldietan hiru berdinketa eta porrot bi pilatu ditu.



Elorrio Rugby Taldeko jokariak.

Elorrio Rugby Taldeak onena izan gura du onenen artean

ERRUGBIA Liga erregularreko liderrak liga txapelketako finalerdia jokatu du Gipuzkoa Sortzenen aurka

J.D. ELORRIO

Gizonen Euskal Ligan, Elorrio Rugby taldea izan da talderik onena. 20 partidutik 18 irabazita, lider amaitu du eta ez da lehenengo aldia. Hirugarren urtez jarraian amaitu du lider Euskal Ligan.

Orain, lau talderik onenek Euskal Ligako txapelketa jokatu dute. Elorriok laugarren sailkatu den Gipuzkoa Sortzen taldea izango du aurkari finalerdietan. Joaneko partidua domeka honetan izango da, 11:30ean, Donostian. Bueltakeo partidua maiatzaren 17an,

17:00etan, Elorrioko San Roke errugbi zelaian.

Beste kanporaketa Universitario Bilbao eta Getxo Etorkizun taldeen artekoa da. Sailkatzen diren talde biek maiatzaren 31n jokatu dute finala, Gasteizen.

DRT eta Urgozo

Durangaldeko beste ordezkari biak, Durango Rugby Taldea eta Zornotzako Urgozo, Elorrio baino beherago ibili dira. Durangoko taldeak zazpi garaipen gaz amaitu du denboraldia, bederatzigarren tokian. Urgozo hamai-kagarren geratu da.



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA HERRI KIROLAK

Sailkapenak

Norbere burua hobeto ezagutzeko, geroz eta tresna gehiago erabiltzen dira. Horietako bat da eneagrama. Ez badakizue zer den, laburbilduz esango nizueke, pertsonalitateak bederatzi tipologia ezberdinetan banatzen dituen tresna dela. Tresna hau landuz jakitzen da bakoitza zer eneagrama tipo den. Honen bitartez suposatzen da norbere burua eta ingurukoak hobeto ulertuko dituzula. Pertsonalki, arraroa egiten zait mundu guztiko pertsonak bederatzi taldetan banatu gaitzakeen tresna dagoela sinistea, baina, tira, horrela diote jakitun batzuek.

Ni ez naiz horretan jakituna, baina konturatu gara, gaztetan umeak kirolean jolas moduan hasten direla, gustatzen zaiela baina heltzen dela momentu bat non taldeak ateratzea, txapelketak egitea eta motibazioari eustea zaila den. Hori dela eta, "gazte kirolaria" hiru kategoriatan sailkatzeari ekin diogu. Aipatu behar da, txikitan, ume bat kirolean hasten denean, jolasean

hasten dela. Hasieran, kirola ezagutu beharra dago, eta, horretarako, jolasa oso gako garrantzitsua da, entrenatzailearen jarrera den bezala. Urte batzuk pasa ostean, jada ez da jolasa, kirol bilakatzen hasten da, horrek dakartzan ondorio guztiekin: askotan asteburuetan ezin lagunekin irten, jatekoa zaindu, arratsalde luze neketsu asko, sufrimendua, eta abar eta abar. Etapa horretan, gazteak hiru mota hauetako erabaki bat hartzen du:

"HELTZEN DA MOMENTU BAT NON TALDEAK ATERATZEA, TXAPELKETAK EGITEA ETA MOTIBAZIOARI EUSTEA ZAILA DEN"

Lehenengoa: kirol hori alde batera utzi eta beste gaztaro bati ekiten diona, parrandazalea esan deza-keguna.

Bigarrena: kirolean jarraitzea nahi duena, baina asko sufritu gabe. Laburbilduz, jolasten jarraitu nahi duena eta lehenengo mailatik bigarren maila batera jaisten dena.

Hirugarrena: kirolean murgilduta jarraitu nahi duena, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Askotan goi mailara iristen dena.

Irakurle, ez dakit eneagramako zein kategoriatan sartuko zenukeen zeure burua edota ondorengo hiru kategoriak gustatu zaizkizun.

Askotan guztia orokortzen dugu eta taldeetan be-reizten gara. Baina gogoratu mota guztietako jendea bizi dela gure inguruan, eta askotan ez dagoela gure bizipenetara edo ideietara ehuneko ehuneko egokitu-tako talderik.

GUARDIAKO BOTIKAK

MAIATZAK 2, BARIKUA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 3, ZAPATUA
09:00-09:00
Navarro, Artekaleara 6 - Durango
Melero, San Pedro 31 - ZornotzaDomeka, 00 XXX
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 4, DOMEKA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Melero, San Pedro 31 - ZornotzaDomeka, 00 XXX
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 5, ASTELEHENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Melero, San Pedro 31 - ZornotzaDomeka, 00 XXX
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MAIATZAK 6, MARTITZENA
09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - DurangoSanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MAIATZAK 7, EGUAZTENA
09:00-09:00
Sagastizabal,Askatasun etorb. 19 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
MAIATZAK 8, EGUENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Mikel
Zorionak, aita, zure urtegunean.
Mosu handi bat Xiberu eta
Martintxuren partez. Asko maite
zaitugu!



Uxue Mantzizidor
Apirilaren 22an **Uxue**
Mantzizidorren urteguna izan
zan. Xuban, Katrin, Lur eta
Gaizkan partez mosu handi-handi
bat. Maite zaitugu!



Nahia
Maiatzaren 10ean, **Nahia** 12
urte egingo ditu; zelan pasatu den
denbora! Zorionak, neska handi!
Ondo pasatu eguna eta ospatu
topera. Segi horrela. Maite
zaitugu. Muxu potolo bat familia
guztiairen partez.



Naia
Zorionak, **Naia**! Jarraitu zaien
moduko neska maitagarria eta
alaia izeten. Zorionak eta mosu
handi bat famili guztian partez!



Lur Iturbe
Apirilaren 30ean Lur Iturbe Jaio
6 urte egin ebazan! Zorijonak
prexioxa Billabonako eta bertako
famieliaren partez. Mosutxoak!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Irati (1019.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.



Mara
Zorionak, **Mara**! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Asko maite zaitugu! Mosu handi bat Manex, aita, ama eta familia guztiairen partez! Jarraitu horrela!



Aratz
Aratzek 14 urte egin ditu. Zorionak eta mosu potolo bat ama, Jabi, Julen, Haizea, Amets, Maguie, Oreo, Goku, Boo eta gainontzeko familiaren partez.



Zorionak, kurruskito! Kalabazak emon deuskuzut ta entzun biherko dozuz; antza Kantabria aldera juen zara mariskada jaten amanteren bategaz... Euskal Herrian dietan zauzela ta. Mosutxuek txarritxuz euskaldunen partez.

DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Maiatzak 9 19:00

IRAKURRALDI GIROTUA

IURRETAKO BERBETA ETA LITERATURA: SATOR HEGALARIAK

ALDEZ AURRETIKO IZEN EMATEAREKIN 946 81 27 26 688 863 736 biblioteka@iurreta.eus

Antolatzailea **Iurreta** Durangako Udalak

Babeslea **gerediega**

INMOBILIARIAK




F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA
IURRETA 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €-tik aurrera.**
AZUKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €-tik aurrera.**
ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. C.E.E=B.
AUKERA
IURRETA
Elizalde: Apartamentua. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. Eguzkitsua. Terraza. Garaje itxia eta ganbara. **C.E.E=E 236.000 €.**
ETXEBIZITZAK SALGAI
Gallanda: Apartamentua. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 238.000 €.**
Mikeldi: 84 m2. 3 logela, komuna, sukaldea terrazarekin eta egongela balkoiarekin. **C.E.E=F 193.000 €.**
Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**
J.M.Altuna: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. garajea aukeran. **C.E.E=E 318.000 €.**
Arkotxa: 3 logela eta 2 komun. TErraza. Ganbara. garajea aukeran. **C.E.E=F 293.000 €.**
San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €.**
Baserría, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E.E=F**
Izurtza: Baserría. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**
Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**
LOKALAK SALGAI
Ermodo: 148 m2ko lokala. Alokairuan / salgai. **Komentukalea:** 100 m2-ko lokala. Egokituta. **160.000 €.**
Durango: 100 m2-ko lokala alde zaharrean. Egokituta. Taberna. **125.000 €.**
Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**
Iurreta: Bixente Kapamaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 e**
Astepe: 40 m2-ko lokala. Egokituta. **70.000 €.**
Maspe: 150 m2-ko lokala. **112.000 €.**
Askatasun Etorbidea. 60 m2-ko lokala. Egokituta. Kearentzako irteera. **125.000 €.**
Alluitz: 70 m2-ko lokala. Egokituta. Erakuslehiorekin. **145.000 €.**
Plateruen Plaza: Garajea trastelekuarekin. **23.000 €.**
Kanpatorrosteta: Garajea. **13.000 €-tik aurrera.**
Juan Mari Altuna: Garajea. **15.000 €.**




Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3.solairua. Igogailurik gabe.
San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.
BERRIZ
Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.
ATXONDO
3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.
LURSAILAK SALGAI
Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserrí ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estrauktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Markina: Iturreta auzoan. Baserría salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m2-ko lur sailarekin.
Mañaría: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaría erdian bizitzeko.
BULEGOAK ALOKAIKUAN ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo klean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.
LOKALAK ALOKAIKUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.
LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA
Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.
Arriandi industrigunean. 400 m2. Biltegirako aproposa.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E:E. 160.000 €

DURANGO Goienkale: 66,70 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (mendebaldea) Erdigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak Egoera onean. Ganbara.



C.E.E: F. 195.000 €

DURANGO Artekale: 90 m2. Egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. ITE-a pasatutakoa, ez ditu berrikuntzak behar.



C.E.E: BIDEAN. 298.000 €

DURANGO Muruetatorre: 115 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntza batzuk behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta trastelekua ondoan.



C.E.E: F. 134.000 €

IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela (logela, jangela eta office bezala banatua) eta komuna (dubxarekin) Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak.



C.E.E:BIDEAN. 166.000 €

IURRETA Uralde: 66 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO
Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**
Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**
Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**
ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**
ATXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserría lursailarekin. **300.000 €.**
BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitze. baserría lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitze. baserría lursailarekin. **330.000 €**
GARAI
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze. lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**
IZURITZA
Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 570.000 € ORAIN 530.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**
DURANGON ALOKAGAI
Antso Eztegi: Garajea. **50 €**/hilean.
Muruetatorre: Garajea. **75 €** / hilean. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO
Aliendalde auzunea: 200 m2-ko pabilioia. **217.000 €**
Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m2 inguruko azalerarekin. **728.000 €**/E.E.Z= Salbuetsita.



LAU-HORTZA

**BIXENTE
AIZPURUA EGUREN**

Ama lurra

Apirilaren 22an Ama lurraren eguna ospatu zen, baina guk zer egiten dugu bera zaintzeko eta babesteko? Gauza politak esan, oso proposamen interesgarriak adierazi, baina dena hitzetan baino ez da geratzen.

Gero eta gehiago kutsatzen dugu, temperatura etengabe gora doa, eta, ondorioz, uholdeak, sikuteak, etab. bortitzagoak dira.

Hor daude Pradales eta Otxandianoren hitzak non esaten duten lur gehiago erabili beharrean kutsatutakoak berreskuratu behar ditugula, baina benetan ez da betetzen.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, 700 gune baino gehiago daude kutsatuta eta zer egiten dute hori konpontzeko? Beste aldera begiratu.

Elorrioko kasuan 16 hektareatik gora ditugu hutsik, eta enpresak etorri beharrean joan doaz. Orduan, zertarako behar ditugu industrialde gehiago?

Ba Elorrioko PNVk eta EH Bilduk ez dute hori ikusten eta apirilaren 23an egin zen Ingurumena, Hirigintza eta Landa Garapenerako ohiko bileran gai zerrendako 2. puntuan Pulla-Azkarreta Plan Partzialaren behin beineko onarpena eztabaidatu zen. Zorionez, gaia mahai gainean geratu zen txosten edo informe batzuk falta zirelako, baina beraien asmoa aurrera jarraitzea da.

Ez badugu ezer egiten gero damutzeak ez du ezertarako balio. Mugi gaitezen eta gera dezagun zentzugabeko proiektu hau!

AKUILUA



Fermin Zuberok hunkituta jaso zuen jai batzordearen eta auzokideen aitortza.

"Laguntza behar duenari laguntzen jarraituko dut"

FERMIN ZUBERO MAÑARIKUA TRAÑA-MATIENAKO JAIETAKO OMENDUA

Urte askoan jaiak isili-isilik eta inurri-lanean antolatzen ibili eta gero, Fermin Zuberok ondo merezitako omenaldia jaso du Traña-Matienako jaien hasiera ekitaldian

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Donien Atxa goratu orduko izendatu zuten urteko pertsonaia, domekan, jaietako oroi-garria eta Iluntze dantza taldeko kideen ohorezko agurra jasota. Kale bazterretatik *Aupa Fermin!* oihuak egin zizkioten. ANBOTOk omenaldia jaso berrian elkarriketatu zuen Zuberok, Donien Atxa jasotzeko ekitaldian bertan, pozik, hun-

kituta eta begiak malkotan zituela.

Begi bistakoa da aitortza hau hunkiduraz jaso duzuna.

Izan ere, ez nuen halakorik inondik inora ere espero.

Auzotarrak txaloka eta 'Fermin! Fermin!' oihuka izan dira ekitaldian. (Hunkituta) Oso polita izan da. Hainbeste urtean jaietan behar egin eta gero aitortza ailegatu da. Poztekoa da.

Akorduan duzu zelan hasi zinen auzoko jaiak antolatzen?

Hamabi-hamalau urtegez hasi nintzen laguntza eskaintzen. Pintxoak egiten eta Donien Atxa nondik hartu genezakeen esaten, hori guzti hori lotzen. Lehen, desberdin egiten zen Donien Atxa jasotzeko ekitaldia. Afaria egiten zen lehenengo, eta afaria amaiturikoan joaten ginen pnuaren bila. Inortxok ere ez

zekien nondik ekartzen zen pinua. Ez genuen inor abisatzen. **Izan ere, askok ez dakite, baina auzoko gazteriak zuen etxeko lur eremuetatik hartu izan du Donien Atxa urte askoan, zuek trukean sekula ere ezer eskatu barik.**

Aitak eta amak bazuten horren berri, eta bazekiten zertarako zen. Horrek sekula ere ez digu ardura izan.

Urteak pasatu arren, jaietako ekitaldiak antolatzen segitzen duzu; paella txapelketan, perretxikoen erakusketan...

Hamaikaxo biderrez egon naiz paelletan epaile, baita tortilletan ere. Maiatzaren 4an perretxikoen dastatzea egingo dugu. Horrez gainera, txosnetako parrilladan ere egongo naiz laguntzen. Lagundu behar zaionari laguntzen egongo naiz, geuri ere laguntzen diguten lez.

Asko aldatu dira jaiak?

Bai, asko. Lehen, gehiago edaten zen arren, giro sanoagoa zegoela esango nuke.

Zelan gozatuko dituzu jaiak?

Lagun artean txikito pare bat hartuta hasiko ditut jaiak. Bazkariak ere izango ditut elkarteetan, eta karakolak prestatuko ditut Mesoi tabernan. Arabarrek bakarrik ez, geuk ere jango ditugu karakolak!

Egin pregoilari lana: zer esango zenieke auzokideei?

Ondo pasatzeko eta borrokarik ez egiteko. Nahikoa da hori.

"JAIETAN ONDO PASATZEKO ETA EZ BORROKATZEKO ESKATU GURA DIET HERRITARREI"

Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:
sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa